



Arartekoaren Ebazpena, 2008ko urriaren 30ekoa. Honen bidez Osakidetza- Euskal Osasun Zerbitzuari gomendioa egin zaio kexaren egileari eskatutako informazioa helaraz diezaion, zehazki, administrari laguntzaile kategoriako aldi baterako kontratazio zerrendak.

Aurrekariak

1. Espediente hau izapidetzea ekarri duen eskaria egin zuen pertsona hautagai da Osakidetza- Euskal Osasun Zerbitzuko hainbat zerbitzu erakunde eta zentroetan. Hain zuzen ere, administrari laguntzaile kategoriako lanpostu eta funtzioan dauden lanpostu hutsak edo ordezkapenak betetzeko.

Hala da 2004az geroztik. Orduan behin betiko onartu ziren 2002 urteko lan-
eskaintza publikotik eratorritako aldi baterako kontrataziorako zerrendak. Horiek
Osakidetza- Euskal Osasun Zerbitzua ente publikoaren Administrazio
Kontseiluaren 2004ko urtarrilaren 26ko Erabakiaren arabera eratu eta arautzen
dira.

Zerrendetako pertsonen lehentasun ordena eratzeak akordioak ezartzen dituen
irizpideei jarraiki, interesdunak bi kontzeptu ezberdinetatik eskuratutako
puntuaketa osoa jaso zuen, zehazki, honakoak: Alde batetik, hautagaiak
lehenago aipatutako eskaintzaren esparruan egin zituen oposaketa faseko
hautaketa probetan eskuratutako kalifikazioa, eta bestetik, kategorian
eskuratutako lan esperientzia.

2006ko martxoan Osakidetzak zerrenda berriak kaleratu zituen. Interesdunari
dagokionez, zerrenda berriek oposaketan behin betiko eskuratu zuen kalifikazioa
galarazi zioten eta ondorioz kontratazio zerrendetan betetzen zuen posizioan
atzeraka egin zuen. Administrazioak titulu akademikoa egiaztatze
betekizunekin lotutako gai bati egotzi zion aldaketa. Alderdi hau aipatu baino ez
dugu egingo, kexa hau bideratzeko ez baitago horren inguruan gehiago jakin
beharrik.





Nolanahi ere, gure esku-hartzearen babesa jaso zuten interesdunak jarritako kexak eta gaiaren inguruan zure uziak ezagutu nahi izan genituen. Gauzak horrela, 2007ko uztailaren 19an, ente publikoaren Zuzendaritza Orokorrak erakunde honi jakinarazi zion, beharrezko egiaztatzeak egin ondoren, interesdunari berriro onartu ziola oposaketan lortutako kalifikazioa eta bere hautagaitza zegokion tokian kokatu zuela zerrendetan.

2. 2007ko urriaren 22an, interesdunak Osakidetza- Euskal Osasun Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluarengana jo eta honela zioen idazkia helarazi zien: *“solicitud de información al amparo de lo dispuesto en el artículo 35 de la Ley 30/92, con carácter previo a la formulación, en su caso, de reclamación de responsabilidad patrimonial”.*

Aurrekariak azaldu ondoren, jarraian jasotako erantzuna eskatu zitzaion administrazioari, eskariari amaiera emateko:

“1)- Identificación de los contratos que, de acuerdo con la puntuación de la compareciente, ahora restablecida en las listas de sustituciones tanto para el Hospital Donostia, como para el PAC Donostia, le hubieran sido ofertados a partir del día 1 de enero de 2006, de acuerdo con su puntuación y ubicación en aquellas listas, con indicación de su duración y demás condiciones de trabajo, tales con jornada (%) y retribución, con la debida identificación de los mismos, así como la de los miembros de las listas adjudicatarios de aquellos. O

2) Identificación de los contratos adjudicados a miembros de las listas de sustituciones de auxiliares administrativos, tanto para el Hospital Donostia, como para el PAC Donostia, a partir del 1 de enero de 2007, con puntuación inferior a 50,6782 puntos, con indicación de su duración y demás condiciones de trabajo, tales como jornada (%) y retribución.”

3. Hiru hilabete igaro ziren administrazioak interesdunaren eskaerari inongo ebazpenik eman gabe, horregatik Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen.

Aurretiazko balorazioa eginda, kexagilearen salaketari oinarri emango dioten argudioak topatu genituen. Horregatik prozesuari hasiera eman eta administrazioako erakundeari gaiaren inguruko informazioa eta zuen iritzia eskatu genizkion.

Erantzuna txosten bidez helarazi ziguten eta haren ondorioak ebazpena ezezkoa izango zela agertu zigun. Osakidetza- Euskal Osasun Zerbitzuak emandako





argudioek administrazio publikoen ondare erantzukizuneko prozedura esparruan sailkatu zuten eskaera.

Ikuspuntu horretatik abiatuta, bi arrazoiengatik ukatu zuten eskaera.

Administrazioak garatutako lehenengo argudioak dio administrazio publikoen ondare erantzukizuneko prozeduren araudian ez dela jasotzen halako izapidetzarik, alegia, jatorri horretako erreklamazioa jartzeko aurretiazko informazioa biltzea. Horren harira dio prozedura ofizioz zein interesdun pertsonak eskatuta hasi daitekeela. Azken kasuan, eskudun organoari zuzendu beharko zaio erreklamazioa eta azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 70. artikularekin bat etorri beharko da. Hori guztia honakoetan jasota dago: azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 142. artikuluan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa eta martxoaren 26ko 499/1993 Errege Dekretuko 6. artikuluan, administrazio publikoek ondare erantzukizunaren arloan garatzen dituzten prozedurei buruzko erregelamendua onartzen duena.

Aipatutako bigarren argudioak dio kexaren iturri den ustezko egitateari ezin zaiola aplikatu azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35. artikulua. Aginduko g) atala irakurri eta gero administrazioak bere auzia egin du eta horren bidez onartu du herritarrek eskubidea duela *“a obtener información y orientación acerca de los requisitos jurídicos o técnicos que las disposiciones vigentes impongan a los proyectos, actuaciones o solicitudes que se propongan realizar”*. Horri dagokionez, ondare erantzukizun erreklamazioak ez dira artikulua hizpide dituen proiektu, jarduera edo eskariak. Halaber, ezin da ulertu auzi honetan eskatutako informazioa betekizun juridiko edo teknikoekin lotuta dagoenik.

Arrazoi berberak ematen dira 2008ko martxoaren 6an Giza Baliabideen Zuzendaritzak helarazi zuen idazki batean.

Administrazioak ezezkoa eman ostean, erakundeak beste ekimen bat abiatu zuen. Orduan azpimarratu zituztenak honakoak izan ziren: eskatzailea bera barne dagoen lan-poltsen kudeaketarekin interesatua egon eta horrek ematen duen eskumena prozeduraren izapidetzaren egoeraren berri edukitzea. Kudeaketari amaiera emateko Osakidetzak azaldu berri ditugun argudioak jasotzen zituen txostena egin zuen.





Aurrekariak ikusita beharrezkotzat jo dugu administrazioari eskatzea interesdunaren eskaerei gutxi gorabehera erantzutea, izan ere ordenamendu juridikoaren babesa dauka eta halaxe agertu da honakoetan

Gogoetak

1. Jendarteak herri administrazioetan parte har dezake Konstituzioko 9.2 artikuluan oinarrituta. Agindu hori aurreko tituluan jasota egoteak parte-hartzearen printzipioa egiaztatzen du. Izan ere, botere publikoei dagokie inguruabar zehatzak sustatzea eta oztopoak kentzea, herritar guztien parte-hartzea eraginkorra eta benetakoa izan dadin, bai bizitza politikoan, baita ekonomi, kultur eta gizarte bizitzan ere.

Parte-hartze eskubidearen esparru zabala maila ezberdinetan zehazten da, botere eta administrazioen jardunari dagokionez. Jendartearengan eragin duten xedapen administrazioen eraketan haren iritzia entzutetik hasi (105.a art.) eta prozedura batean informazio gehiago eskuratzeko aukera izateraino doaz, azken hori prozedura batean legitimaziorik dutenei legeak ematen dien ahalmena da.

Herritarren partaidetzaren gaineko azken adierazpen hori interesatzen zaigu kasu honetan, eta horregatik hortaz arituko gara.

Horretarako, nahitaez aipatu beharra dago Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herritarrentzako eraginkortasun eta zerbitzu irizpideak administrazioaren jardunaren oinarritzko irizpide ezarrita (3.2 artikulua), 35. artikuluan jasotzen dituela herritarrek herri administrazioekin dituzten harremanetan dagozkien eskubideen zerrenda. Eskubide zerrenda horretako batzuk modu orokorrean ematen zaizkie herritarrei. Besteak, ordea, berezitzat jo genezakeen izaera dute eta horiek erabiliko dituzten prozeduretan sartuta dauden interesdunei bakarrik dagozkie.

Horregatik interesdun pertsonen statusak berak legera jotzen du azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35. artikuluko zerrendako lehenengo eskubidea gogorarazteko. Aginduak honela jasotzen du hizpide dugun eskubidea, hitzez hitz:





“Los ciudadanos, en sus relaciones con las Administraciones Públicas, tienen los siguientes derechos:

- a) A conocer, en cualquier momento, el estado de la tramitación de los procedimientos en que tengan la condición de interesados, y obtener copias de documentos contenidos en ellos.”*

Azpirarratu beharra dago, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 35. a) artikuluan adierazten den eta prozedura batean interesdun diren pertsonen alegazioak egin eta audientzia izapidetzan entzun diezaieten ahalmena ematen diren eskubidearen kaltetan izan gabe, eskubidea baliatzea ez dagoela izapidetza edo prozesuko une jakin batekin lotuta. Aitzitik, prozeduraren izapidetzaren edozein momentutan balia daiteke. Gainera, espedienteko dokumentu guztien kopiak eskuratzea dakar. Espedientean bertan berau osatzeko burutu diren jardun guztiak gehitu dira.

Ikergai dugun kasuan, 2004ko urtarrilaren 26an Osakidetza- Euskal Osasun Zerbitzua ente publikoaren Administrazio Kontseiluak hartutako Erabakiaren ondorioz hasi zen. Hartan hizpide zen erakundeko osasun zerbitzuen egituretan langile ez finkoak sartzeko zerrendak erregulatzeko sistema eta arau hori Euskal Herriko Agintaritzak Aldizkarian argitaratu zen, 2004ko otsailaren 18an, 33. zk.

Erabaki honetan garatutako arauak osasun administrazioan arituko diren langile ez finkoen zerrendak osatzeko dira. Bertan zerrenda motak definitu, zerrendak egiteko irizpideak ezarri eta onarpena eta izena emateko forma ezartzen dira. Langileen zerrendak behin eratuta, poltsen kudeaketa edo aplikazioaren bidez behin-behineko beharrak sortu ahala asetzen joango dira. Erabakiak uko egin, kanporatze eta beste alderdi batzuen gaineko arauak jasotzen ditu eta horrek argi adierazten du zerrenden funtzionamendua administrazio prozeduraren zati dela. Prozedura hori martxan izango da hasiera eman zion eta hartatik sortu ziren zerrendak erregulatzen dituen araua indarrean dagoen bitartean.

Egitate honek agertzen du 35. artikuluko a) atalean onartzen den ahalmena dela kexari dagokiona eta ez g) atalekoa. Azken horretan jasotzen den eskubidea administrazioak egindako analisian zentratzen da, eta dio herritarrek eskubidea dutela jasotzeko *“información y orientación acerca de los requisitos jurídicos o técnicos que las disposiciones vigentes impongan a los proyectos, actuaciones o solicitudes que se propongan realizar”*, aginduak hitzez hitz adierazi bezala. Orokorrean jendarteari zuzendutako ahalmena ematen du eta gehiago zuzentzen zaio administrazio publikoek herritarrei eman beharreko laguntza zehatzari,





azken horiek legezko betebeharrak egoki bete ditzaten. Bistakoa da interesdunak egindako eskaria bere izena ageri den lan-poltsen kudeaketari buruzko datuak biltzea dela. Prozedura hori hasita eta abian dela kontuan harturik, ez du zerikusirik hasi gabeko prozedura baten inguruko informazio eta orientazio tekniko edo juridikoa bilatzearekin, horietan ez baita egoten interesdun pertsonalik.

Horrenbestez, hizpide den prozedura administratiboaren ebazpen xede den auzian pertsona batek duen interes legitimoa oinarria da, administrazioari dei egin eta eskatzeko espedientearen izapidetutako jardunbideak ezagutzeko eskubidea baliatzeko egoki diren baliabideak baimendu eta eskuragarri jar ditzan. Prozeduran hartutako erabakien eragina jasan dezaketen eskubide edo interes legitimoek, 35.a) artikulua aldarrikatzen dute.

Planteamendu honek berdin-berdin balio du esku artean dugun prozedura administrazio publikoko aldi baterako langileak kontratatzetik sortutako beharrak asebetetzea denean. Helburu hori lortzeko bideratutako mekanismoek eska dakiekeen bizkortasunak ez du eskubidearen baliagarritasuna murrizten ezta kanpo uzten ere. Aitzitik, lanak pertsonen bizitzan duen garrantziak administrazio publikoek egindako esfortzua bideratu behar du, lan-poltsen lehentasun orden zorrotza bermatzeko –azken batean, merezimendu eta gaitasun printzipioak babestea- eta horien kudeaketa gardena izan dadin. Gardentasunaren helburura hurbiltzen gaitu interesdun pertsonen beren lan aukeren gainean eragina duten edo izan dezaketen jardunen gainean informazioa ematea.

2. Gure aburuz, lehenagoko gogoetan mintzagai izan dugun azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 35. artikulua ezin hobeto jasotzen ditu kexaren egitateak, eta horrenbestez interesdun emakumeak egindako eskaerari erantzuten dio.

Hala ere, espedientearen izapidetu bitartean, erakunde honek aukera izan du 35. artikuluan jasotzen diren eskubideetatik interesdunaren planteamendua babesten duen eskubide bakarra hori ez dela azaltzeko. Aginduaren h) atalean honako aitorpena aurkitu dugu:

“Los ciudadanos, en sus relaciones con las Administraciones Públicas, tienen los siguientes derechos:

(...)

h) Al acceso a los registros y archivos de las Administraciones Públicas en los términos previstos en la Constitución y en ésta u otras Leyes.”





Zehazki, manu honek Espainiako Konstituzioko 105.b) artikuluan aitortutako eskubideari erantzuten dio. Bere hedadura eta aplikazio baldintzak ezagutzeko, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 37. artikulua ikusi behar dugu.

Azken manu horretan azaltzen da artxibo eta erregistroetara sarbidea herritar guztientzat dela eta espediente baten parte diren dokumentuak hartzen ditu barne, edozein forma edo euskarritan emanda ere. Halaber, eskubidea baliatzeko eskaera egiten den egunean prozedura amaituta egon behar dela azaltzen du.

Erakundean egin dugun analisia egiteko prozeduraren ikusmolde zabaletik jo dugu, barne har zitzan interesduna dagoen lan-poltsa guztietan emandako izapidetzak, araudi erregulatzailetik eta deialditik hasi eta indarraldiak eratorritako kontratazio kudeaketa gauzatzeraino.

Hala ere, ulertzen dugu burututako aldi baterako estaldura bakoitza prozedura konplexuago baten prozedura ezberdin gisa hartu behar direla. Prozedura hori izendatzea eragin duen kontratu edo izendapena sinatzen denean bukatzen da.

Irakurketa honek ulertarazten du prozedura itxita dagoela informazioa eskatzerako garaian eta gauzatutako jardunak jasotzen dituzten dokumentuak artxibatuta daudela. Interpretazio honi jarraiki eta, ondorioz, ordezeko izaerarekin, eskariak dokumentuak dauden artxibo eta erregistroetara sartzeko eskubidearen babesa jaso dezakeela uste dugu, 35.h) artikuluan ezarritakoari eta 37. artikuluan zabaldutakoari jarraiki.

Agindu hauek aztertuta, interes legitimo eta zuzena edukitzea garrantzizko baldintza dela ondorioztatzen da. Halaber, tratamendu bat dauka administrazio publikoetako artxibo eta erregistroetara sartzeko eskubidea baliatzerakoan. Agiri izendunen kasuan titularrek bakarrik baliatu dezakete sartzeko eskubidea. Arauak zehazten duen interes legitimoa eta zuzena egiaztatzen duten hirugarrenek dokumentuak ezagutu eta kopiak lortu ahal izango dituzte, beti ere pertsonen intimitatearen datuak jasotzen ez badituzte eta daukaten edukiagatik eskubideak baliatzeko erabilgarriak badira.

Gure ustez, hauxe da interesdunaren eskaeran ematen den kasua. Eskatu dituen dokumentuek –epe zehatz batean bere puntuazioa baino baxuagoa duten hautagaiekin sinatutako kontratu edo izendapenak- dokumentua osatzeko





oinarrizko izendapen datuak izango dituzte, baina zerbitzu harremana eskuratu duen pertsonaren intimitateko daturik ez da izango. Eskatutako dokumentuetan ezarritako adierazpenak interesdunaren lan eskubideak zehazteko balioko dute.

Eskubide ororekin bezala, berau baliatzea ez da mugagabea. Mugetako bat pertsonen intimitateko datuak dituzten dokumentuetara sarbidean aurkituko dugu, pertsona horiek bakarrik baino ezingo dira sartu. Interes publikoko arrazoiak, babesa gehiago merezi duten hirugarrenen datuak tartean badira edo legeak hala badio, dokumentuetara sarbidea ukatu daiteke. Horrelako kasuetan, eskudun organoak arrazoitutako ebazpena eman beharko du. Azkenik, artikuluan hainbat arlo jaso dira eta horien espedienteak sarbide eskubidetik at daude (administrazio zuzenbidearen menpekoak ez diren eta eskumen konstituzionalekoak diren gobernuaren jardunak, defentsa nazionala, estatuko segurtasuna, delituen ikerketa, merkataritzako edo industriako sekretua eta politika monetarioa).

Gure aburuz, ez dirudi horietako baldintza bat bera ere dagoenik, interesdunari eskatu duen dokumentazioa kontsultatzen ez uzteko. Administrazioak ez du aipamenik egin eta hala izan balitz, arrazoitze baldintza bete beharko zuen.

Azkenik, aipatu beharra dago 37. artikuluan arautzen den sarbide eskubidea dokumentuen kopiak edo egiaztagirak eskuratzeko baliabidearekin osatzen dela. Beti ere administrazioak baimena eman badu eta ezarritako zenbatekoak ordainduta, hala badagokio.

3. Administrazio prozeduran interesdun pertsona izateak gure aurkezpena baldintzatu du. Izan ere, horrek premisa osatzen du bai prozeduren izapidetzaren egoera ezagutzeko eskubiderako (35. artikulua), baita espedientea osatzen duten dokumentu izendunetara sartzeko ere (37.3. artikulua).

Ezbairik gabe, kexaren egileari ezaugarri hori eman diogu. Hala ere, horren bistako den kontu batek inongo arazorik eragin ez dezan, ebazpenaren zati hau baliatuko dugu status hori zerk ematen dion arrazoitzeko.

Zentzu horretan, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 31. artikulua *interesdun kontzeptua* dakarkigu. Legeak ezaugarri hau merezi duten hiru kasu adierazten ditu. Hain zuzen ere, honakoak:

"1. Se consideran interesados en el procedimiento administrativo:





- a) Quienes lo promuevan como titulares de derechos o intereses legítimos individuales o colectivos.*
- b) Los que, sin haber iniciado el procedimiento, tengan derechos que puedan resultar afectados por la decisión que en el mismo se adopte.*
- c) Aquellos cuyos intereses legítimos, individuales o colectivos, puedan resultar afectados por la resolución y se personen en el procedimiento en tanto no haya recaído resolución definitiva.”*

Kasu honetan administrazioak ofizioz hasitako prozedura baten laguntza jasoko lukete, osasun ente publikoaren Administrazio Kontseiluaren 2004ko urtarrilaren 26ko Erabakiari jarraiki, lehenengo gogoetan jada aipatu dugun bezala. Bere helburua sistema bat sortzea da, erakundeari kontratatutako profesional eta langileriaren gainean sor dakizkioken beharrei erantzuteko.

Prozedura horren garapenean, kexagileak sortuko ziren lan-poltsetan izena emateko eskaria aurkeztu zuen eta administrazioak onartu zuen. Jardun horien ondorioz, eskatzailea eskatutako zerrendetan sartu zen: osasun alorra eta zerbitzuen antolamendua.

Modu horretan prozeduraren interesdun bihurtu zen eta oraindik bada, lanpostu huts, ordezkapenak eta behin-behineko estaldura duten beste kasuetarako hautagai delako. Horrek zerrendan duen tokiaren arabera, bera izendatu edo kontratatzeke eskubidea ematen dio.

Prozedura abian dela, interesdunak izapidetzaren egoerari buruzko datu eta dokumentu batzuk eskatu zizkion administrazioari, bertan eskariak hizpide dituen jardunak eta berau justifikatzen duten aurrekariak zehaztu zituen. Eskatutakoaren balorazio txiki bat eginez gero, ezingo genuke inolaz ere gehiegitzat edo bidegabetzat jo. Izan ere, denbora epe zehatz batean egindako kontratazioen gainekoak dira, bere lan-poltsari buruzkoak eta horiek lortzeko aukera galdu zuena, bere jarduerarekin zer ikusirik ez zuten gertakariak bere puntuazioa eta zerrendan zeukan tokia kaltetu zutelako.

Gure ustez eta egindako oharrekin bat, kasu honetan daukagun egoera prozeduran interesdun pertsona definizioarekin bat dator, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 31.1.b) atalean adierazi bezala. Honek, ezagun den ezaugarria edukita, ordenamendu juridikoan ezartzen diren eskubide eta ahalmenak baliatzeko bidea ematen dio, kasuan kasu ezarri daitezkeen betekizun eta baldintzak errespetatuta.





4. Behin baino gehiagotan, argudioak eman bitartean, adierazi dugu interesdunaren eskaria sartu den administrazio prozeduraren bidez Osakidetza osasun zerbitzuetako egituretan langile ez finkoen sarbidea ordenatzen dela.

Zentzu horretan gehiago errepikatzea ez litzateke beharrezkoa izan beharko, baina osasun erakundeko arduradunek interesdunaren instantzia ondare erantzukizuneko erreklamazioa jarri aurreko informazio izapidetza aurkeztutako eskaritzat jo dute. Ondorioz, beste behin berretsi behar dugu eskubide horri egoki deritzogun kalifikazioa.

Interesdunak ez du halako izaera duen prozedura hasteko eskaririk egin, ezta jakinarazi ere, etorkizunean halakorik ezartzeko asmorik duenik. Bere nahia idazkitik hitzez hitz uler daitekeena da: *“Solicitud de información al amparo de lo dispuesto en el artículo 35 de la Ley 30/92, con carácter previo a la formulación, en su caso, de reclamación de responsabilidad patrimonial de Osakidetza-Servicio vasco de salud”*.

Alde batetik, 35. artikulua aipatu izana, bere jardueraren legeko babes gisa, eta “bere kasuaren” alderdi zehatzak, nahikoa justifikazio izan behar ziren administrazioak ondare erantzukizun prozedura batean sar ez zezan. Nahiz eta interesdunak instantzia oker sailkatu izan- gure aburuz, ez da horrelakorik eman- ulertu behar dugu administrazioak esfortzua egin behar zuela bere izapidetza bideragarri egiteko sailkapena lortzearren, izan ere, instantziatik beretik benetako izaera ikusterik zegoen.

Aurrekoaren kaltetan izan gabe, administrazioak emandako arrazoiak ere aztertu ditugu. Horien bidez, administrazioak adierazi du, herri administrazioen ondare erantzukizunaren administrazio prozeduran ez dela jasotzen mota horretako erreklamazioa jartzeko aurretiazko informazioa deritzon izapidetzarik.

Egia esan, ez gatoz horrekin bat eta horren azalpena eskariaren oinarri den azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35. artikuluan dago. Manu horrek hainbat eskubide ematen dizkio jendarteari, administrazioarekin dituen harremanetan baliatzeko. Hain zuzen ere, interesdunak baliatu nahi duen ahalmena erabili ahal izateko interesdun izaera izan behar da, eta ikusi dugu, jada, horrela dela. Horrenbestez, artikulua horretan izendatzen diren eskubideak baliatzea ez da legeko VI tituluan araututako ezarpenei jarraiki gauzatzen diren prozedurekin





mugatzen. Bestela esanda, ondare erantzukizuneko prozeduretako araudian ez bezala, prozedura berezietan ez da bere aplikazioa kanpo uzten.

Halaxe adierazten du 35. artikulua azaroaren 26ko 30/1992 Legearen IV. tituluan kokatuta egoteak. Titulu hori, izenak berak erakusten duenaren arabera, "*Herri Administrazioen jarduerari*" buruzkoa da eta arau orokor gisa hartzen da.

Are gehiago, arlo honetako prozedurak arautzeko beren beregi egindako araudiak edukitzeak ez du zertan ekarri prozedura administrazioak arautzen dituzten ezarpen orokorren aplikaezintasuna. Azaldu beharrik ez duten arrazoiengatik, legelariak izaera orokorra eman die. Izan ere, aipatutako araudiak behin baino gehiagotan bidaltzen zaitu azaroaren 26ko 30/1992 Legea. Besteak beste, 7. artikuluan jasotakoa aipagarria da. Bertan adierazten da ondare erantzukizuneko prozeduren instrukzioak prozesu-legearen III. eta VI. kapituluekin bat etorrira egingo direla.

Hori guztia dela-eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, honako gomendio hau egin dugu:

27/2008 GOMENDIOA, urriaren 30ekoa, Osakidetza- Euskal Osasun Zerbitzuari egina.

Kexa egin duen emakumeari eskatu dituen administrari laguntzaile kategoriako aldi baterako kontratazio zerrenden kudeaketari buruzko informazioa helaraz diezaiola.

